

webgunea

Euskal e-posta zerbitzua eta txat euskalduna 'Euskalerrria.org'-en

Euskalerrria.org webguneak doako lehen e-posta zerbitzua eta euskaldunei zuzendutako txat-a ditu www.euskalerrria.org helbide elektronikoan. Orrialde beretik, Euskal Herriari eta euskarari loturiko webguneetara sar daiteke, hala nola, *Elkarlanean* fundazioa, *Eguraldia.com*-era, *Entziklopedia.com*-era eta EGUNKARIA-ko web orrira.




Webgunea: www.euskalerrria.org

argitalpena

James Gimlewski eta Caf-Elhuyar sariak ditu ardatz 'Elhuyar' aldizkariak

Zientzia eta teknikari lotutako gaiak aztertzen dituen *Elhuyar* aldizkariak kazetariak James Gimlewski fisikaria elkarriketatu dute. Zientzia dibulgaziorako VIII. sarien berri ere ematen du *Elhuyar* aldizkariaren azken aleak. Gainera, txertoei eta VLT teleskopioari buruzko informazioa eta zotina kentzeko erremedioak ere azaleratzen ditu.



Argitaratzailea: **Elhuyar Kultur Elkartea**

DONOSTIA. 'Anfibioen kontserbaziorako jardunaldi europearra'. Gaur, 09:00etatik aurrera, Aquariumean.

ZEGAMA. 'Erlezain eguna'. Gaur, 10:00etan, txistulariek alaitutako kalejira. 10:30ean, **Erle durrunha**. 11:00etan, **Gipuzkoako ezti lehiaketa** eta **gozogintza lehiaketa erakusketa**. 13:00etan, **Gipuzkoako IV. ezti lehiaketaren eta gozogintzaren sari banaketa**. Gainera, **urteko erlezaina omenduko da**. 14:45ean, **bazkari herrikoa**.

erakusketak

ARRIGORRIAGA. 'Gorbeiaiko Gurutzea'. Otsailaren 22a arte, Soziokultur Gunean. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara.

BILBO. 'Gaur, hemen, orain'. Apirilaren 7a arte, Bilboko Arte Ederretako Museoa.

'Sombras de mujer'. Otsailaren 17a arte. Liburuaren Etxean. Raul Dominguezaren akuarelak.

BURLATA. **Pedro María Hernández Mirandaren margoak**. Hilaren 24a arte. Asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara. Astelehenetan itxita.

DONIBANE LOHIZUNE. **Maskaradaren inguruko erakusketa**. Gaur, Ducentenia egoitzan.

DONOSTIA. 'Kantuketan erakusketa soinuaduna'. Martxoaren 2a arte, Koldo Mitxelenaiko Ganbera aretoan.

'Itxastarrak'. Otsailaren 27a arte, Ontzi Museoa. Itsasoari buruz Jose Ortiz-Echaguek eginiko erakusketa.

DURANGO. **Baroja Colleten eskultura, collageak eta grabatuak**. Martxoaren 30a arte egongo da ikusgai Beittu arte galerian. Erakusketa, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:30era egongo da zabalik.

EIBAR. **Estella Muñozen lana**. Otsailaren 17a arte, Arrate Kultur Elkarteko Topalekuan.

GASTEIZ. **Mikel Zabalen argazkiak**. Martxoaren 1a arte ikusgai, hika atenean.

IRUN. **Dorleta Elgearen pintura erakusketa**. Otsailaren 24a arte.

antzerkia 'Cor de mel' Gayarre Antzokian, gaur (18:00etan)

Hainbat kulturen aldeko aldarrikapena

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Hiru eta zortzi urte bitarteko haurrei zuzendutako ikuskizuna da *Cor de mel*. Guztira, bost antzezlek hartzen dute parte Carmen Baidesen testuetan oinarritutako obra honetan, hain justu, Carmen Baides, Jose A. Garcia, Inma Ortega, Juan Carlos Mestre eta Miguel Esteve.

Antzezle hauek hogeitasei pertsonaia ingururi ematen diote bizia. Gainera, lan honetan parte hartzen duten antzezleak zuzenean abestera eta txotxongiloekin lan egitera ere animatzen dira, zuzeneko emanaldietan.

Argumentuari dagokionez, erle batzuen istoria ardatz hartuta, izaera eta jatorri ezberdintasuna txarra izan beharrean aberasgarria dela azaleratzen du *Cor de mel*-ek.

Horretarako, bost erle igozten dira taula gainera. Erle hauetariko lauk bizimodu lasaia eramango dute, baina bat-batean, Mumi izeneko erlea azalduko da euren bizitokira. Mumik



EGUNKARIA
Cor de mel obra.

beste jatorri bat du, eta gainontzeko erleekin harremantzeko zailtasunak ditu, besteak beste, ordura arte lasai bizi ziren erleek pentsatuko dutelako euren bizimodu lasaiarekin jarraitzeko Mumi kaltegarria dela.

Hala ere, bada Mumiren etorreran alde positiboak ikusten dituen erlerik. *Cor de mel* edo Eztiaren bihotza izeneko erleak Mumi euren arteko harremanentzat kaltegarria baino onuragarria dela pentsatuko baitu. Horrenbestez, bere lagunei Mumiren jatorriak eta izakerak beste kulturak ezagutzeko aukera ematen diela, eta bizitza aberasgarria dela arrazoituiko die.

Cor de mel obra Jacata antzerki taldearena da. Jacata 80ko hamarkadan sortu zen, eta orduztik, hogeita hamar obra inguru taularatu ditu, tartean, *El aumento* izenekoak. Sergi Bebelek zuzendu zuen *El aumento* lanari esker, jaialdi garrantzitsuetan hartu zuten parte Jacatako kideek.

Euskadiko Kutzaren Erakusketa Aretoa. Asteartetik larunbatera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. Igande eta jai egunetan goizeko 11:30etik eguerdiko 13:30era.

'Mujeres artistas vascas en solidaridad con la Union Nacional de Mujeres Saharaus'. Martxoaren 4a arte. Kabigorri Bidasaldeko Ateneoa.

Asteartetik igandera arratsaldeko 18:00etatik gaueko 22:30era. Astelehenetan itxita. Begoña Arostegi, Alicia Lagartos, Kris Barañano, Leire Makazaga eta Ilargiren lanak izango dira han.

Arte azoka. Gaur, 10:30ean, Antzaran plazan.

IRUÑA. 'Retratos'. Martxoaren 7a arte Luis Azanzaren argazkiak ikusgai izango dira Maisonnaben.

LASARTE. 'Pirineoak'. Martxoaren 4a arte Jalgi Antzokian.

ONDARRU. 'Animalia basatiak'. Bihartik hilaren 24ra udal erakusketa aretoa.

ONATI. 'Basoen baso'. Bihartik apirilaren 28ra bitartean, Natur eskola.

ZANGOZA. 'Erdi-Aroko aztarnak Zangotzan'. Otsailaren 27a arte ikusgai Vallesantoron.

ZARAUZ. **Jaione Berasategiren olioak**. Gaur arte izango dira ikusgai, Torre Luzean. 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etan aste barruan.

Jai egunetan, berri, 12:00etatik 14:00etara.

Juan Gorritiren eskulturak. Sanz Enean.

'Victor Hugo'. Olerti Etxean.

Clemente Bernarden 'Gatazkak'. Photomuseumean.

Angel Urangaren pintura. Bidea arte galerian.

ZIZUR NAGUSIA. **Marta Loredoren margoak**. Gaur azken eguna, Kultur Etxean. Astean 19:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Igande eta jai egunetan, berri, 12:00etatik 14:00etara.

ZORNOTZA. **Joseba Betzuenen olioak erakusketa**. Zornotza aretoa.

ikastaroak

ATARRABIA. **Eskalada ikastaroa**. Atarrabiako errokodromoan egingo da, otsailaren 18tik martxoaren 14ra. Informazioa nahi duenak dei dezala HH Indurain

kiroldegira (948 382255), 16:30etik 22:00etara.

BILBO. 'Historias inmortales, fuentes y relatos de los cuadros de historia'. Bilboko Arte Ederren museoan emango dira eskolak, martxoaren 13a arte.

Izena emateko, 94 - 4396060 zenbakira hots egin.

Txalaparta, eskulanak, altzarien berriztapena, panderoa, alboka eta egur lanketa ikastaroak. Onki Xin elkartek antolatutako ikastaroetan izena emateko

94 - 410 25 71 telefonora deitu.

DONOSTIA. **Adierazpen artistikoari buruzko ikastaroak**. Donostiako udalak, besteak beste, argazkigintza, antzerkia, zinea, ipuin kontalari,

dantza, txalaparta eta perkusioari buruzko ikastaroak antolatuta ditu, otsailetik apirila artean. Ikastaroak 16 eta 30 urte arteko gazteei zuzenduak daude. Informazio gehiago 943390122 edo 943466492 telefonoetan.

IRUÑA. **Hitano ikastaroa**. Astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 20:00etatik 22:00etara. Ikastaroaren hasiera otsailaren 19an izango da, Iruñezar Euskaltegian.

TOLOSA. **Argazkigintza ikastaroa**. Otsailaren 20tik ekainaren 20a arte. Iñigo Royok emango du ikastaroa.

UROLA KOSTA. **Enpresa sustatzailerrientzako ikastaroa**. Martxoaren 4tik 15era, Bultz Lan Consultin enpresaren eskutik.